

KOLEKTIBOAK EUSKAL HERRIRATZEA ETA DAGOZKIEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA LORTU NAHI DU

## Hogei presok gose greba mugagabeari ekin diote

Hogei euskal preso politikok igandeko 24:00etan gose greba mugagabea hasi zuten. Honen bidez dagozkien eskubideak errespetatzea eta presoak Euskal Herrira ekartzea lortu nahi dute. Hori azaltzeko Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiari idatzi bat bidali diote.

Erredakzioa / Donostia

EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBOAK bere eskubideen aldeko protestaldia jarraitzea erabaki du eta, horretarako, Espainiako eta Frantziako espetxeetan diren hogei presok gose greba mugagabea hasi dute, AA-Beek jakinarazi dutenez. Gose greba hau igande gauerdian hasi zen, eta izaera mugagabea du. Hala ere, honen nondik-norakoei buruzko informazio gehiago Kolektiboak berak emango du laster kaleratuko duen agiri baten bidez.

Presoek, gainera, Euskal Herrira ditzaten eskatzeko Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusira idatzi bat bidali dute modu ofizialean. Protestaldi berri hau urtariletik presoek daramaten borrokaren barruan dago. Izan ere, urtariletik hona presoak etengabe aritu dira gose grebak edo itxialdiak egiten.

Gose greba hasi duten presoak honakoak dira: Oscar Bizkai iruinsemea eta Onintze Gutierrez basauriarra Alcala-gazteak espetxean; Maritxu Uzquidun erre-zildarra, Lurdes Txurruka sorazuztarra, Alberto Plazaola oñatiarra eta Josetxu Portu erreteriarra Carabanchelen; Josune Onaindia barakaldarra eta Miren Karmele Urbistondo urnietarra Avilako espetxean; Felix Alberto Lopez de la Calle gasteiztarra, Txema Olabarrieta bilbotarra eta Jokin Zubieta orkoientarra La Santen; Francisco Javier Garmendia lezotarra, Joseba Oleaga bilbotarra eta Oscar Garro ba-



Euskal Herriratzeko eskatuz hasi zuten borrokari segida emango diote presoek.

MANU MUJICA

sauriarra Ocaña IIn; Txema Mabillos barakaldarra eta Asier Etxeberría erreteriarra Valladoliden; Pello Iriondo ermuarra, Bautista Barandaia etxariarra, Jose Mari Fernandez barrikarra eta Unai Erkiz erreteriarra Zazagozan.

**Ventura Tome presoak gose greba abiatu du Espainiaratearen aurka** • Ventura Tome Quiroga 43 urteko pasaitarrak gose greba abiatu

zuen igandean preso duten Baionako espetxean. Oraindik data zehaztu ez badiote ere, Tome Quiroga hilabete bukaeran beteko du auzitegiak ezarritako zigorra, eta aske gelditu ordez Espainiaratuko duten kezka du Tome Quiroga, azken asteotan Simone Odriozola eta Inaxio Olaskoaga euskal presoek gertatu zaien bezala.

Tome Quiroga 1995eko maiatzean itzuli zen Ipar Euskal Herrira, Parisko Auzitegiak ezarria

zuen egoitza asignazioa hautsiz. Euskal Herrian bizitzeko eskubidearen alde Baionako katedralean itxialdia egin zuen bertze hamaika asignatu ohirekin batera; bertan bizitzeko eta lan egiteko beharrezko agiriak galdegin zituen, baina ez zuen inolako erantzunik jaso. Aitzitik, aurtengo maiatzean atxilotu egin zuen Hendaiaiko DICCILECek (PAF zena) eta maiatzaren 30ean preso sartu, asignazioa hausteagatik. X

## Presoak batzea «burugabekeria» dela esan du Mayorrek

EAJren eta PPren arteko akordioak «egiazkoa» izan behar duela adierazi du

Vasco Press / Bilbo

EUSKAL presoak hurbiltzeko planak egitearen alde azaldu zuen Jaime Mayor Oreja Barne ministroa, baina presoak batzea «burugabekeria» dela gaineratu zuen. Presoak hurbiltzearen gaiaren inguruan EAJrekin proiektu komun bat egiteak indar politikoak hurbiltzea eragingo lukeela gaineratu zuen ministroak. Hala ere, euskaldunen eta gainontzeko espainiarren arteko proiektu hau «egiazkotasunean eta sendotasunean» oinarritu beharko litzatekeela esan zuen. Mayor Oreja RNE irratiko irratsaio batean egin zituen adierazpen hauek.

EAJren eta PPren arteko proiektuan neurri politikoak eta polizialak hartu behar dira kon-

tuan ministroaren ustez. Politikaren arloan, presoak Euskal Herrira hurbiltzea izango litzateke lehen neurria. Hurbiltzea gauza dadin, espetxeetako politika normalizatzea ezinbestekoa dela esan zuen Mayor Orejak, eta hurbiltze plangintzak indibidualizatua izan behar duela berretsi zuen. «Bere jarreraren arabera, preso bakoitzak tratamendu indibidualizatua jaso behar du. Hurbiltzeko, urruntzeko eta sakabanatzeko planez ahaztu beharra dugu eta presoek batzeta eragotzi, burugabekeria baita. Ezin dugu indarkeriaren zuzendaritza espetxe berean bildu».

EAJrekin eginiko proiektuak «egiazkoa» izan behar duela gaineratu zuen Mayorrek. «Arlo honetan emango diren aurrera-

pausoek Espainiako eta Euskal Herriko indar politikoen arteko hurbiltzeta bat eragingo dute». Ministroak adierazi zuen gatazka honek urte asko daramatzala eta «ahalik eta hobekien zuzendu behar da gatazka». Helburua, gizartea norabide onean jartzeta da Mayorren ustez. «Ezin da presak ibili eta arazoaren konponbidea zuri dagokizula pentsatu».

Euskal Herriko indarkeria amaitzea demokraten esku dagoela adierazi zuen Mayor Orejak, eta indarkeriaren aldekoek estrategia eta helburu bakarra dutela esan zuen. «Pistolaren diziplinaren menpe daude, beldurraren eta diktadura hutsa den txantajearen menpe». Jarrera hau dutenak 100 euskaldunetatik 15 direla azaldu zuen ministroak.

Beste hainbat gaiez ere mintzatu zen Espainiako Barne ministroa. Entzutegi Nazionalen atzemandako ertzainei buruz, Ertzaintzaren aktazioaz zalantza izateko arrazoirik ez dagoela esan du, «baimen judiziala zutelako». Bideo Bidezko Zaintzako proiektuari dagokionez, proiektu honek grabaketak erregulatzen dituela esan zuen ministroak, pertsonen intimitatea babesteko. «Honela, kalean lasaitasunez pasea daiteke, kale indarkeriaren aurka borrokatzeko modu bat baita». Sekretu Ofizialen lege berriarekin «gizartearen eta Gobernuaren artean konfiantza faltarik» ez dela egongo esan zuen. Era berean, Jose Antonio Ortega Lara laster aske utziko dutela zalantza jarri zuen ministroak. X

Elizak presoen gaia jorra dezala eskatuko diote Senideek Setieni

■ Gaur arratsaldean bilduko dira Donostiako gotzainak eta Senideak elkarteko ordezkariak

Erredakzioa / Donostia

GAUR bilera izango dute Senideak elkarteko ordezkariak eta Jose Maria Setien Donostiako gotzainak. EGUNKARIAK jakin ahal izan duenez, Senideak elkarteak joan den astean Hegoaldeko eta Iparraldeko gotzainei eskutitz bana bidali zien presoengain inguruan Elizak duen jarrera aztertzeko eta eztabaidatzeko bilera eskatuz. Atzo arte erantzun zuen gotzain bakarra Jose Maria Setien zen, eta gaur arratsaldean egingo dute bilera. Bertan Senideak euskal presoengain inguruan berri emango diote Setien gotzainari, eta Elizak presoengain inguruan duen jarreraren inguruko zalantza agertu ostean, presoengain jorratzeko eta presoengain eskubideen alde lan egiteko eskatuko diote Senideak elkarteko ordezkariak. Senideak elkarteak beste gotzainaren erantzuna ere espero du.

Senideen protestaldia

**Arantzazu** • Setienek atzo meza eman zuen Arantzazuko santutegian eta bertan hainbat agintari izan ziren, Jose Antonio Ardanza tartean. Santutegian meza entzuten ari ziren bitartean, kanpoan Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak taldeek detutako hainbat lagunek presoengain aldeko kontzentrazioa egin zuten. Meza amaitu ostean, bildutakoek presoengain aldeko oihuak eta agintariengain aurkakoak egin zituzten, erantzain ugari aurrean zituztela. Agintari zibilak joan zirenean, ordea, ertzainak ere joan ziren eta kontzentrazioan bildutakoak Setienengain hurbildu ziren eta Elizaren jarreragatik kezu azaldu ziren. Setienek, bildutakoekin apur bat hitz egin ostean, gaur bilera zutela gogorarazi ziren.

Bestetik, Setienek kale istiluak aipatu zituen hitzaldian. Gotzainak adierazi zuenez, «gazteen manipulazioak heldu duen manipulazioa dakar; hau da, askatasunik gabeko gizartea dakar». Setienek aburuz, kale istiluak amaitzeko hezkuntza oso garrantzitsua da. «Gizarteak ezin dio gizartearen onerako gazteak hezteari uko egin, baina batez ere, bakoitzaren onerako».

Setienek esan zuenez, «ez dugu behar dugun bakea». Eta hori hainbat gauzak eragiten dutela esan zuen, esaterako, «persona baten babilketa bortitzak, kale biolentziak, espetxeetan giza eskubideak bortxatzeak eta mehatxuak, eta arazo ekonomikoak eta sozialek aurre egiteko giro egokia ez izateak». X